



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

59. INFORMAZIO BULETINA

> 2011ko Iraila



GIPUZKOA



NABARMENDU BEHARREKOA

> Finantza publikoen jasangarritasuna

Europar Batasuneko herrialdeen finantza publikoei buruzko 2011ko Txostenak berriki izandako bilakaera aztertzen du eta estatu kideetan finantza publikoen degradazioa nabarmena dela azpimarratzen du. Horrela, kezka politiko nagusizat jotzen du.

Era berean, txostenak zorraren bilakaera eta zaintzako tresna berriak aztertzen ditu. Burututako erreformek zorraren prebentzioa eta murrizketa Europar Batasuneko aurrekontu-zaintzaren erdi-erdian kokatzen dute.

Bateratze fiskalaren prozesuak aurrera egiten jarraitu arren, 2012an BPGaren gaineko zorraren ratioa % 83,3 izatea aurreikusten da, eta azken bost urteotako portzentajezko hogei puntutik gora handituko litzateke.

Txostenaren bigarren atalak aurrekontuen krisiari buruz erkidegoek abiatutako ekimenak zein onartutako legegintza-sorta jasotzen ditu.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/economy_finance/publications/european_economy/2011/pdf/ee-2011-3_en.pdf

> Handitzen ari den ahultasuneko testuinguruko aurreikuspen ekonomikoak

Europako Batzordeak irailerako egindako hazkunde aurreikuspenaren arabera, urteko hazkundera % 1,7 izango da urte osoari begira. Hala ere, lehen hiruhilekoan aurreikusitakoa baino hazkunde handiagoa izatearen ondorioz gertatuko da, bigarren hiruhilekotik aurrera moteltze nabarmena gertatu delarik. Berez, urte honetako bigarren erdirako aurreikuspenak beherantz zuzendu dira.

Horrela, hirugarren hiruhilekoari begira % 0,2ko hazkundera aurreikusi da, eta urteko azken hiruhilekoan ere mantenduko da, beheranzko joera izan arren. Esan dutenez, "urte amaieran ia guztizko geldialdia izatea aurreikusten da". Beheranzko aurreikuspenek aztertutako estatu kide guztiei eragiten diete, eta izendatzaile komuna, eta aldi berean, euren ekonomien arteko elkarrekiko lotura maila altua erakusten du horrek.

Halaber, abian den murrizketa honek barne-mailako eskaria ahultzen lagunduko duela eta finantza-merkatuei buruzko tentsioak konfiantza galtzea eta inbertsioaren kostua areagotzea ekarriko duela (zalantza handiko testuinguru ekonomikoan) baieztatapenean islatzen da agertoki ezkor hori.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/economy_finance/articles/eu_economic_situation/pdf/2011/2011-09-interim-forecast-final_en.pdf



> Gipuzkoako eta Europako enpresen dimentsioa

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak Gipuzkoako enpresek europarrekiko duten dimentsioa konparatzen duen azterketa argitaratu du.

Azterketa horrekin batera, manufaktura-industriaren dimentsioa eta enpresa-tamaina desberdinei lotutako produktibitatea aztertzen dira.

Informazio gehiago:

http://www4.gipuzkoa.net/ogasuna/fondoseur1/uploads/notas/2011-09_Iruzkina.pdf



KOMUNITATEKO POLITIKAK

> Ikerketa eta berrikuntzaren gaineko lankidetzak, erronka sozialei begirako konponbideak bilatze aldera

Ikerketaren eta berrikuntzaren bidez Europaren erronka handientzako konponbideak izan daitezkeela nabarmendu du Batzordearen Komunikazioak, hala nola, biztanleen zahartzea, klima-aldaketaren eraginak eta bitarteko gutxiago izateari dagokionean; era berean, hazkunderako aukera berriak eskaintzen dituztela azpimarratu du. Erronka horien garrantzia kontuan hartuta, publiko-pribatuaren arteko zein Estaturen arteko lankidetzak ezinbestekoa da.

Burututako proiektu ereduak abiapuntu gisa hartuta, Europa mailan elkartzea proposatzen du eta beharrezkotzat eta erabilgarritzat jotzen dira; hala ere, horretarako, administrazio-xedapen errazagoak eta malguagoak behar dira.

Honako hauek dira elkartze publiko-publikoen eta publiko-pribatuen helburuak:

- lehiakortasuna eskuratu eta mantentzeko eta gizartearen erronka nagusiei aurre egiteko masa kritikoa lortzea, beharrezkoak diren maila eta garrantzia bermatze aldera;
- epe laburreko planteamendu batetik epe luzeko beste batera igarotzea;
- baterako ikuspegia gara dadin eta agenda estrategikoa ezar dadin laguntzea;
- proiektuetan oinarritutako planteamendu batetik Europako ikerketa eta berrikuntzako programazioa duen beste batera igarotzen laguntzea, modu horretan, bazkide izan daitezkeen guztiak bilduko dituen planteamendu zabal bat berma dadin;
- elkartzeei egitura eta xedapen egokituak eskaintzea, euren izaera eta helburuen arabera.

Planteamendu hau Horizon 2020 ikerketa eta berrikuntza ekimenari txertatuko zaio eta urte amaieran kaleratuko da.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/research/era/pdf/partnering_communication.pdf



> Finantza-transakzioen gaineko zerga sistema komuna

Batasuneko Kontseiluko Zuzendaritzaren proposamenean jasotzen den moduan, EBan zein nazioartean adostasun handia dago finantza sektoreak ekarpen bidezkoagoa egitearen egokitasunari buruz, bereziki krisiaren aurkako borroka eragindako kostuak eta gaur egun sektore honi lotutako zerga-ordainketa urria kontuan hartuta.

Ildo horretatik, Batasuneko Kontseiluko Zuzendaritzak finantza-transakzioen inguruko zerga sistema komunari buruzko proposamena egin du, finantza-transakzio guztientzat aplikagarria dena. Baldintza gisa jarri da gutxienez transakzioaren aldeetako bat estatu kide batean kokatzea eta estatu kide baten lurraldean dagoen finantza-erakundeetako bat transakzioaren alde bat izatea, eta bere kabuz edo hirugarren pertsonen kontura, edo transakzioaren alde baten izenean jardutea.

Estatu kide bakoitzak finkatuko ditu tasak, zerga-oinarriaren portzentaje gisa: % 0,1 (eratorrien kontratuei lotutako finantza-transakzio desberdinak) eta % 0,01 (eratorrien kontratuei lotutako transakzioen kasuan).

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2011:0594:FIN:ES:PDF>



> Goi-mailako hezkuntza sistemen modernizazioa

“Hazkundera eta enplegua laguntzea, Europan goi-mailako hezkuntza sistemak modernizatzeko agenda” izeneko Batzordearen Komunikazioak hausnarketa bat hartu du abiapuntu gisa, alegia, goi-mailako hezkuntza erakundeak hazkundera bultzatu eta mantentzeko xedearekin Europar Batasunak duen estrategia martxan jartzeko funtsezko bazkideak direla. (EU 2020). Europa 2020ari begira hezkuntza arloko helburu nagusia izanda: urte horretan gutxienez gazteen % 40ak goi-mailako ikasketak izatea.

Eta goi-mailako hezkuntza erakundeek gizartean duten zeregina betetzeko eta Europaren oparotasunean laguntzeko dituzten aukerak behar bezala baliatzen ez dituztela azpimarratu du; Europak jada ez du ezagutzaren eta talentuaren lasterketa globalaren erritmoa markatzen, eta azaleratzen ari diren ekonomiek goi-mailako hezkuntzan egindako inbertsioa arin handitzen ari dira.

Erreforma estrategiaren helburua goi-mailako tituludunen kopurua handitzea, irakaskuntzaren kalitatea hobetzea eta goi-mailako irakaskuntzak EBko ekonomia krisitik indartuta irten dadin ahalik eta gehien laguntzea da. Estrategiak irakaskuntzari dagokionez EBko herrialdeen artean helburu komunak lortzeko ahalegin handiena egin behar duten lehentasuneko esparruak identifikatu ditu, eta Europar Batasunak modernizaziorako politika nazionalak nola lagun ditzakeen definitu du.

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2011:0567:FIN:ES:PDF>



KOHESIO-POLITIKA

> Europar Batasuneko eskualdeen bateratzeak aurrera egin du

Azken hamarkadan barrena, kohesio-politikaren helburu nagusiak, alegia, erkidegoko eskualdeen arteko bateratze-prozesuak, neurrian aurrera egin du. Modu horretan, 2000. urtean EB-27ko biztanleen % 14 Batasunaren batez besteko per capita BPGa (erosteko ahalmenaren pare) baino baxuagoa zuten eskualdeetan bizi zen; 2008an, berriz, portzentaje hori % 9ra murriztu zen, Eurostatek argitaratutakoaren arabera.

Aurkako muturrari begiratuta, Batasuneko batez bestekoaren % 25 baino per capita aberastasun handiagoko eskualdeetan bizi ziren biztanleen kopurua % 25etik % 20ra murriztu zen.

Estatu kide berrien dinamismoa nabarmentzen da. Herrialdeetako hiriburuak kokatzen diren eskualde oso dinamikoez gain, hazkunde nabarmena izan dute Baltikoko estatuak, Errumaniak, Eslovakiak, Txekiar Errepublikak eta Poloniako eskualde gehienek. EB-15eko eskualdeen artean, Espainia nabarmentzen da, eta baita Holanda, Grezia, Finlandia eta Suediako hainbat eskualde ere.

Hazkunde urriena Italiako eta Frantziako eskualde askotan antzeman daiteke, eta era berean, Alemania, Portugal, Austria eta Erresuma batuko eskualdeetan dinamismo txikia ikusten da.

Informazio gehiago:

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_OFFPUB/KS-SF-11-046/EN/KS-SF-11-046-EN.PDF

> Eskualdeko politikak etorkizuneko Europan izango duen zeregina

Eskualdeko Politikako Zuzendaritza Nagusiaren Panorama aldizkariak hurrengo hamarkadan, Europa 2020an, Europaren hazkunde estrategia aztertu du.

Aldizkariak EBren 2020 estrategiaren helburuak lortzeko estatu kideei laguntzeko orduan eskualdeko politikak duen zeregina aztertzen du, eta eskualdeko politikak hazkunde adimendun, jasangarri eta barneratzaileari egiten dion ekarpena aztertzen du.

http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/panorama/pdf/mag39/mag39_en.pdf



e-LIBURUTEGIA

> ETEen egoera Europar Batasuneko estatuetan

ETEEK Batasuneko herrialdeetan, zein Albanian, Kroazian, Mazedonian, Islandian, Israelen, Liechtensteinen, Norvegian, Montenegron, Serbian eta Turkian bizi duten egoeraren inguruko fitxa-sorta argitaratu du Batzordeak.

Aztertutako 62 adierazleak Small Business Act ekimenaren hamar dimentsioen arabera sailkatu dira, hau da: enpresa-espirtua, bigarren aukera, lehenik eta behin eskala txikian pentsatzea, Administrazio Arduratsua, estatuko laguntzak eta kontratazio publikoa, finantziarioa eskuratu ahal izatea, merkatu bakarra, gaitasunak eta berrikuntza, ingurumena, eta nazioartekotzea.

Horrekin batera, Europako ETEei buruzko urteko txostenak ETEen tamaina, egitura eta Europako ekonomian duten garrantziaren eta hazkundeari eta enpleguari egiten dioten ekarpenaren inguruko ikuspegi orokorra jasotzen du.

Informazio gehiago:

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_OFFPUB/KS-SF-11-045/EN/KS-SF-11-045-EN.PDF

> Ekonomia-krisia: Europako finantza publikoetan dituen ondorioak

Eurostaten txostenaren arabera, 2010ean EB osoko diru-sarrerera publikoak BPGaren % 44,0 izan ziren, eta gastua, berriz, Europar Batasuneko BPGaren % 50,3an kokatu zen. Krisiak finantza publikoen gainean izandako eragin izugarria BPGaren defizitean islatzen da, % 6,3an balioetsia.

Argitalpenak diru-sarrerek eta gastu publikoek 2010ean izandako bilakaera du oinarri, ekonomia- eta finantza-krisiaren testuinguruan, eta halaber, azken urteotan Batasuneko gobernuen finantzen azterketa egiten du.

Informazio gehiago:

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_OFFPUB/KS-SF-11-045/EN/KS-SF-11-045-EN.PDF



> Europako gida soziala: Enplegua

Europako gida sozialak enpleguari, gizarte-gaiei eta barneratzeko gaiei buruz erkidegoaren politikaren alor zehatzak laburbildu ditu.

Arazo eta erronka nagusiak jaso, EBk garatutako ekimenak azaldu eta estatu kideen jardunbide egokien adibideak txertatu ditu.

Lehen alea enpleguaren alorrean EBk aurrean dituen erronka nagusietan oinarritzen da. Zehazki, langabeziari aurre egiteko, trebetasun berriak garatzeko eta lanpostu berriak sortzeko EBk burututako ekintzak deskribatzen ditu.

Era berean, Europa 2020 estrategiaren testuinguruan enplegu-politikaren zeregina eta Europako gobernantza ekonomikoa azaltzen ditu. Azken kapituluan etorkizunari begira EBren enplegu-politikaren orientabide nagusiak laburbiltzen ditu.

Informazio gehiago:

<http://ec.europa.eu/social/main.jsp?catId=738&langId=en&pubId=6041&visible=1>

> Europar Batasunaren aurrekontuak. 2010eko finantza-txostena

Europako Batzordeak 2010. urteari dagokion aurrekontuari buruzko urteroko finantza-txostena argitaratu du; 120,5 bilioi euro izan zen eta % 97 gauzatu zen.

Urtean zehar garatutako programa eta ekimen nagusiei lotutako gastuak eta estatu kide bakoitzari egindako esleipenak xehatzen ditu txostenak.

EBren funts gehien jaso dituzten lau herrialdeak Espainia (13,2 mila milioi euro), Frantzia (13,1 mila milioi euro), Alemania (11,8 mila milioi euro) eta Polonia (11,8 mila milioi euro) izan ziren.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/budget/library/biblio/publications/2010/fin_report/fin_report_10_en.pdf



ADIERAZLEAK

> Handitzearen baitako herrialdeen estatistikak

Europar Batasunean sartzeko bost herrialde hautagaien estatistika nagusiak: Kroazia, Mazedoniako jugoslaviar errepublika zaharra, Islandia, Montenegro eta Turkia. Kroazia eta Turkiarekin negoziazioak 2005ean abiatu ziren, eta Islandiarekin, berriz, 2010ean.

Hautagai izan daitezkeen ondorengo herrialdeei buruzko informazioa ere erantsi da: Albania, Bosnia-Herzegovina, Kosovo eta Serbia.

Estatistikak 2000-2009 aldiaren ingurukoak dira, eta demografia, hezkuntza, gizarte-baldintzak, lan-merkatua, kontu nazionalak, finantzak, kanpo-merkataritza, nekazaritza, energia, industria, zerbitzuak, garraioa, komunikazioak eta informazioaren gizartea, ikerketa eta garapena eta ingurumenaren inguruko adierazleak ere jasotzen ditu.

Informazio gehiago:

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_OFFPUB/KS-GM-11-001/EN/KS-GM-11-001-EN.PDF

> BPGaren hazkundera Gipuzkoan eta EBan bigarren hiruhilekoan

Gipuzkoako BPGaren hazkundera % 0,1era arte murriztu zen bigarren hiruhilekoan, EBko ekonomiaren moteltzearekin batera; azken honen urtetik urterako hazkundera % 0,2 izan zen. Alemaniaren dinamismoa azpimarratzekoa da (% 1eko hazkundera).

Urtetik urterako aldakuntzari begira, Gipuzkoako ekonomia % 0,7 handitu zen azken lau hiruhilekoetan, baina EB-27aren hazkundera baino baxuagoa izan zen (% 1,7).

Estatu kideen artean Estonia, Lituania, Letonia eta Suediaren hazkunde handia nabarmentzen da (% 5 baino handiagoa).

Informazio gehiago:

Eustat

http://eu.eustat.es/ci_ci/elementos/ele0003200/ti_Barne_Produtu_Gordina_lurralde_historikoaren_eta_hiruhilekoaren_arabera_Bolumen-indize_kateatua_2011/tbl0003224_e.html#axzz1aONNyUPB

Eurostat

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_PUBLIC/2-06092011-AP/EN/2-06092011-AP-EN.PDF